



1179 ZB.KO DEKRETUA.

Oiartzungo haranean, bi mila eta hamarreko abenduaren hogeita zortzian

Ikusirik Oiartzungo Udalak Helta Emakumeen Elkarte bere jarduerak burutzeko bideak erraztu behar dituela eta helburu horrekin, Karmele Lekuona eta Angel Arruabarrena jaun-andreen jabegokoa den eta Mendibil 1en kokaturik dagoen lokala alokatu nahi du hilabete baterako 2011.eko urtarrilean hasita, kontratuaren guztizko prezioa 600 € izanik.

Administrazio Orokorreko Teknikariak gaiaren inguran luzaturiko txostena kontuan hartuaz.

Ogasun, Kontu Berezien eta Beste Gaien Batzordeak 2010ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, gai honi buruz luzatutako diktamena ikusirik, eta beronekin adostasunean, Toki-Jaurlararen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan, ZERA ERABAKITZEN DUT:

Karmele Lekuona Etxeberria eta Angel Arruabarrena Ansa jaun-andreekin Mendibil baxua 1 lokala alokatzeko alokairu kontratua sinatzea, honako baldintzetan:

Kontratuak hilabete bateko iraupena izango du 2011ko urtarrilaren 1etik 31ra bitartean.

Alde biak adostu eta sinatutako kontratu berriaren prezioaren arabera, udalak 600 €ko errenta (BEZ kanpo) ordainduko du hilero.

Aitor Etxeberria Txurio Alkate-Lehendakari Jn.ak agintzen eta sinatzen du, eta neuk idazkari naizenez, ziurtatzen.

